

AISIALDI ETA JOLASERAKO IGERILEKU IREKIETAKO ZERBITZUEN ARAUDI OROKORRA

LEHENENGO TITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.

Araudi honen helburua da aisialdi eta jolaserako igerileku irekien instalazioak eta bertan ematen diren zerbitzuak arautzea, prestazio modalitate desberdinak ezartzea eta erabiltzaileen eskubide eta betebeharrak zehaztea.

2. artikulua.

Araudi hau aisialdi eta jolaserako igerileku irekien instalazioetan aplikatuko da, dena dela ere haiek kudeatzeko modua, zuzena nahiz zeharkakoa. Zeharkakoa izanez gero, araudiak berak jasotzen dituen zehaztapen eta salbuespenekin aplikatuko da, kontuan hartuta, halaber, dagozkion baldintza pleguetan instalazioen ustiaketarako bereziki aurreikusitakoa.

3. artikulua.

Kirol Zerbitzuak araudi honetan jasotakoa argitzeko edo garatzeko xedapenak edo ebazpenak emateko eskubidea izango du. Araudi hau eta gainerako arau bereziak (ordutegiak, prezio publikoak, etab.) jendearen esku egongo dira bulegoetan eta instalazioen harreretan.

4. artikulua.

Aisialdi eta jolaserako igerileku irekien instalazioak erabiltzeko eskubidea izango dute bertara sartzeko baldintzak betetzen dituzten pertsona guztiak.

Instalazio hauek kirola ez den bestelako ekintzetarako ere erabili ahal izango dira, puntualki, dagozkion araudia betez gero.

5. artikulua.

Kirol Batzordeak, urtero, tasen proposamena helaraziko dio Osoko Bilkurari. Eta Osoko Bilkurak proposamena onartu egin beharko du tasak indarrean jarri ahal izateko. Tasak onartu eta gero, instalazioak irekitzen direnetik aurrera izango dira aplikagarri. Kirol Batzordeak hartu beharreko neurriak hartuko ditu urtero tasak argitaratu eta ezagutarazi daitezzen.

Aisialdi eta jolaserako igerileku irekien zerbitzu eta instalazioak erabili ahal izateko Hernaniko Udalak onartzen dituen tasak ordaindu beharko dira.

BIGARREN TITULUA

ERABILTZAILEAK

6. artikulua.

Erabiltzaile mota hauek daude:

1. Abonatuak.
2. Abonatuak ez direnak.

1 KAPITULUA: ABONATUAK

7. artikulua.

1. Abonatuak dira abonatu izateko eskaera egin, dagokion tasa ordaindu eta kirol zerbitzuak erabiltzeko tasak ordainduta dituzten pertsonak.

2. Abonua bi motatakoak izan daitezke: famili-abonua edo banakako-abonua. Horrez gain, Hernaniko Udalak interes sozialekotasun jotako pertsona edo kolektiboari hobariak emateko ahalmena izango du.

3. Famili-abonuan honako onuradun hauek sartzen dira: Ezkontideak, 18 urtetik beherako seme-alabak, eta 25 urte artekoak ere bai baldin eta diru-sarrerarik ez badaukate. Etxebizitza berean erregistratu eta erroldatutako izateko bikoteek ere famili-abonua egin ahal izango dute. Familiako kide bakoitzak bere txartela izango du.

4. Bazkide txartela pertsonala da, eta ezin zaio inori utzi.

5. Abonatu txartela galduz gero berehala jakinarazi behar du Kirol Zerbitzuari. Kirol Zerbitzuak txartel berri bat emango dio abonatuari, ordaindu beharreko diru kopurua ordaindu ondoren.

6. Abonua egiteagatik ordaindu beharreko tasa honela ordaindu ahal izango da: banketxeren batean helbideratuz, Kirol Zerbitzuetako bulegoetan kreditu txartel bidez, edo Kirol Zerbitzuko konturen batean diru-sarrera eginez, Kirol Zerbitzuak berak zehaztutako edozein banketxetan.

2. KAPITULUA: EZ ABONATUAK

8. artikulua.

1. Abonatuak ez diren erabiltzaileek kirol instalazioetara eta zerbitzuetara sartzeko aukera izango dute, aldiro dagokion tasa ordainduta.

2. Instalazioetara sartzeko tasak desberdinak izango dira 3 urtetik beherakoentzat, 3 eta 18 urte artekoentzat eta 18 urtetik gorakoentzat.

3. Kontroleko langileek eskubidea izango dute instalazioetara sartzera doan pertsonaren NAN edo adina egiaztatzeko agiriren bat eskatzeko.

HIRUGARREN TITULUA

INSTALAZIOETARA SARTZEKO ETA INSTALAZIOAK ERABILTZEKO ARAUAK

9. artikulua.

1. Instalazioetara sartzeko abonu-txartela aurkeztu behar da, edo abonu-txartela izan baduela egiaztatzen duen agiria. Edo, bestela, sartzeko tasa ordaindu behar da.
2. Kontroleko edozein langilek eska dezake agiri horiek aurkeztea.
3. Debebatua dago baloiarekin, pilotarekin edota beste edozerekin aldageletan, pasilloetan eta kirola egiteko ez den beste edozein lekutan jolastea.
4. Instalazioa ixteko ordua baino 30 minutu lehenago erabiltzaileek igerilekua, solariuma, jangela gunea eta taberna-terraza utzi egin beharko dute.
5. Erabilera txarrarengatik gertatzen diren kalteak kalte horiek eragin dituen pertsonak ordaindu beharko ditu.
6. Instalazioak erabiltzerakoan beti arropa egokia erabili beharko da.
7. Instalazioetako erabiltzaileek armairuak erabiliko dituzte egiten ari diren jarduera ludikoa egiten duten bitartean beren gauzak gordetzeko. Bukatzen dutenean armairua hutsik geratu beharko du.
8. Higiene arrazoiengatik eta instalazioaren funtzionamendu onerako, ezin da aldagelan ez arroparik ez oinetakorik utzi.
9. Debebatua dago instalazioetan erretzea, animaliarik sartzea, sexu bateko pertsonentzat bakarrik diren lekuetara beste sexukoak sartzea, kameradun mugikorrik sartzea eta osasunaren, gizalegearen, higienaren, intimitatearen eta garbitasunaren kontra doan edozein gauza egitea.
10. Ezin da kristalezko ontzirik erabili.

LAUGARREN TITULUA

ERABILTZAILEEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK

1. KAPITULUA: ESKUBIDEAK

10. artikulua.

Abonatu guztiek, abonu-txartela aurkeztuta, instalazioetara sartzeko eskubidea izango dute, kasuan-kasuan ezartzen diren muga eta ordutegien barruan.

11. artikulua.

Abonatu guztiek, ezarritako tasa ordainduz gero, zerbitzu honen instalazioak erabiltzeko eskubidea izango dute, jendearentzako zabalik dagoen ordutegian.

12. artikulua.

Kirol Zerbitzuetan abonatuak guztiek eskubide hauek izango dituzte:

1. Hernaniko Udalak eskaintzen dituen kirol zerbitzu guztiak erabiltzeko eskubidea, zerbitzu bakoitzarentzat dagoen araudiaren arabera.
2. Kirol instalazioetako zerbitzuen edozein arduradun edota langilearen izena edozein unetan eskatzeko eskubidea, erreklamazioen bat edo iradokizun bat egin nahi izatera.
3. Instalazioko langileen aldetik traturik onena jasotzeko eskubidea.
4. Kirol Zerbitzuari instalazio edo zerbitzuen inguruko zalantzak galdetzeko edo iradokizunak nahiz erreklamazioak egiteko eskubidea.
5. Araudi honen ale bat eskatzeko eskubidea.
6. Kirol Zerbitzuari emandako datu pertsonalak indarrean dagoen legerian jasota dagoenaren arabera babesteko eskubidea.
7. Indarrean dagoen legerian jasotako gainerako guztirako eskubidea.

2. KAPITULUA: BETEBEHARRAK

13. artikulua.

Abonatuak eta erabiltzaileak honako betebeharrak daukate:

1. Instalazioak eta zerbitzuak araudian jasotako arauen eta hura garatzen duten xedapenen arabera erabiltzeko betebeharra, instalazioetako langileek emandako erabilera jarraibideak betez, eta instalazioetako langileek eskatuz gero, instalazioak erabili ahal izateko egiaztatzea aurkezteko. Instalazioan sartu ahal izateko abonatu txartela edo sarrera txartela aurkeztu beharko da oro har.
2. Instalazioak eta bertako ekipamendua zaintzeko betebeharra. Nahita egindako edo zabarkeriagatik gertatutako kalteen erantzule arduragabe jokatu duen pertsona izango da.
3. Beste erabiltzaileen eskubideak errespetatzeko betebeharra.
4. Ezarritako tasak epe barruan ordaintzeko betebeharra.
5. Zerbaitek oker funtzionatzen bada, zerbaitek puskatu bada edo araudi honetan esandakoa betetzen ez bada, instalazioko langileei horren berri emateko betebeharra.
6. Instalazioetan behar bezala jokatzeko eta bertako langileen lana errazteko betebeharra.
7. Indarrean dagoen legerian jasotako bestelako betebeharrak guztiak eta araudi honek ezarritakoak betetzeko.

BOSGARREN TITULUA.

IGERILEKUAK ERABILTZEKO ARAUAK

14. artikulua.

Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kontsumo Sailak otsailaren 18an emandako 32/2003 Dekretuak xedatutakoa betetze aldera honako erabilera araudi hau ezartzen da:

- 1.- Hernaniko Udaleko Kirol Batzordeak erabakiko du instalazio hau ireki eta ixteko denboraldi ofiziala.
- 2.- Eguraldi txarra egiteak ez du Kirol Zerbitzuak inolako diru kopururik itzultzeko eskubiderik emango.
3. Igerilekuen barruan, uretan alegia, aldi berean gehienez ere 500 pertsona egon daitezke, eta instalazioetan, berriz, gehienez 1500
4. Derrigorrezkoa da instalaziora sartua urretik duxatzea.
5. Gomendatzen da eremu guztietan txankletak edo bainatzeko zapatilak erabiltzea (bereziki horretarako eramandakoak), igerilekuetako hondartzetan eta uretan izan ezik.
6. Erabat debekatuta dago bainatzeko gunera kaleko arropa edo oinetakoekin sartzea.
7. Erabat debekatuta dago azaleko gaixotasun kutsagarriren bat duten pertsonak bainatzeko gunera sartzea.
8. Igerilekuko beste erabiltzaile guztiei begirunea zor zaie. Hortaz, ezin da igerilekuaren inguruan korrika ibili, korrika uretara salto egin, ez eta norbera edo ingurukoak arriskuan jar ditzaketen joko edo jolasetan aritu.
9. Ez igerileku barruan ez eta inguruetan ere ezin da aletarik, manoplarik, igeriketako betaurrekorik edo eguzkitako betaurrekorik erabili, plastikozkoak badira ere, kolpe baten ondorioz min hartu baitaiteke. (Flotagailuak edo beso-flotagailuak)
10. Erabat debekatuta dago aisialdi eta jolaserako igerileku irekietako instalazio guztietan erretzea.
- 11.- Txirristen igerilekua eta spa-a erabiltzeko igeri egiten jakin beharra dago. Adin txikikoak 18 urtetik gorako nagusiren batek lagunduta ibili beharko dira igerilekuan.

SEIGARREN TITULUA

ZIGORRAK

15. artikulua.

Araudi honetan ezarritako arauak ez betetzea zigorra merezi duen arau hauste izango da.

16. artikulua.

Instalazioaren arduradunek behar bezala jokatzeko ari ez diren pertsonen ohartarazpenak egiteko ahalmena izango dute, baita haiek instalaziotik kanporatzeko ere.

17. artikulua.

Kirol Zerbitzuen instalazioak erabiltzen dituztenek bertako langileek esandakoari jaramon egin beharko diote, instalazioak eta kirol materialak erabili behar diren horretarako erabili beharko dituzte eta pertsona edo ondasunei kalterik eraginez gero haiei erantzun beharko diete.

18. artikulua.

Kirol Zerbitzuaren instalazioa erabiltzerakoan inori kalterik eraginez gero ezingo zaizkio kalte horiek udalari egotzi, ez eta kalte-ordainik eskatu ere, salbu eta kalteak instalazioaren arduradunen erruz edo haren zabarkeriaz gertatu badira, edo instalazioak nahiz materiala egoera txarrean egotearen ondorioz gertatu badira.

19. artikulua.

Kirol Zerbitzuko langileen esanak betetzen ez edo hausten dituztenek eta, oro har, lokaletan edo instalazioetan kalteak eragiten dituztenek honako zigor hauek jasoko dituzte, egindako arau-haustearen larritasuna eta eragindako kaltearen zenbatekoa kontuan hartuta:

Arau-hauste oso larriak:

- Instalazioen barruan udalarenak edo beste erabiltzaileenak diren ondasunak lapurtzea.
- Araudia ez betetzeagatik aldageletan, pasilloetan, instalazioetan edo materialetan 600 eurotik gorako kalteak sortzea.
- Beste erabiltzaileei eta Hernaniko Udal Kirol Patronatuko langileei erasoak eta isekak egitea, eta eskandaluak eragitea eta pertsonen ohorearen edota intimitatearen aurkako erasoak egitea.
- Instalazioetara sartu ahal izateko txartela beste norbaiti uztea edo faltsutzea.
- Arau hauste larriak behin baino gehiagotan egitea.
- Larrialdi eta ebakuazio planerako beharrezkoak diren elementuak lapurtzea, puskatzea edo hondatzea, hala nola alarmak, fitxak, txalekoak, su-itxalgailuak, kartelak...
- Segurtasun araudia ez betetzea.

Arau-hauste larriak:

- Instalazioen desordena publikoa eragiten duten ekintzak egitea, oso larria ez bada.
- Araudia ez betetzeagatik aldageletan, pasilloetan, instalazioetan edo materialetan 100 eta 600 euro arteko kalteak sortzea.

- Beste erabiltzaileekiko edo instalazioko langileekiko begirunerik gabe jokatzea.
- Higiene araudia ez betetzea.
- Azaleko gaixotasun kutsakorren bat duten pertsonak bainatzeko gunera ez sartzeko debekua ez betetzea.
- Arau-hauste arinak behin baino gehiagotan egitea.

Arau-hauste arinak:

- 100 eurotik beherako kalteak eragitea.
- Instalazioko langileen esanak ez betetzea.
- Instalazioak erabiltzea txartelik izan gabe edo instalazioak erabiltzeko aukera ematen duen bestelako agiririk izan gabe.
- Instalazioetan erretzea.

ZIGORRAK

Arau-hauste oso larriak:

Arau-hauste larriei honako zigor hauetakoren bat edo batzuk aplikatuko zaizkie, zigortzeko ahalmena arautzen duen araudiarekin bat etorritz:

- 300 euro arteko isuna.
- Gutxienez bi eta gehienez ere lau urte iraungo duen epe baten abonatu izaera galtzea eta udalaren edozein kirol instalazio erabiltzeko debekua izatea.

Arau-hauste larriak:

Arau-hauste larriei honako zigor hauetakoren bat edo batzuk aplikatuko zaizkie, zigortzeko ahalmena arautzen duen araudiarekin bat etorritz:

- 150 euro arteko isuna.
- Gehienez ere bi urte iraungo duen epe baten abonatu izaera galtzea eta udalaren edozein kirol instalazio erabiltzeko debekua izatea.

Arau-hauste arinak:

Arau-hauste arinei honako zigor hauetakoren bat edo batzuk aplikatuko zaizkie, zigortzeko ahalmena arautzen duen araudiarekin bat etorritz:

- 50 euro arteko isuna.
- Gehienez ere hilabete iraungo duen epe baten abonatu izaera galtzea eta udalaren edozein kirol instalazio erabiltzeko debekua izatea.

Artikulu honetan adierazitako egintzak egiteagatik jartzen diren zigorrez gain, arau-haustea egiten duten pertsonak kaltetutako ondasunak lehengoratu egin beharko dituzte, eta kalte-ordainak ordaindu, horien zenbatekoa zigor espedientearen ebazpenean ezarriko delarik.

Araudi honetan jasotako zigorrak jartzeko Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legea aplikatuko da.

ZAZPIGARREN TITULUA.

AZKEN XEDAPENAK

20. artikulua.

Zerbitzu jakin batzuen erabilera artikulatu osagarri eta zabalago baten bidez arautu ahal izango da, erabiltzaileek hobeto uler dezaten.

21. artikulua.

Araudi honetan jasota ez datozen kasuak, printzipioz, Kirol Zerbitzuak ebatziko ditu.

22. artikulua.

Araudi honen aldaketak behar bezala argitaratuko dira ahalik eta zabalkunde handiena izan dezaten.

23. artikulua.

Arau hau, onartze aldera egin beharrekoak egin ondoren, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hogeita hamar egunera jarriko da indarrean.

Argitaratu : BOG 104 2014ko ekainaren 4an

Indarrean: 2014ko ekainaren 19an.